

ONDAREA. Herriko bilduma handitzen joatea da asmoa, erakusketa monografikoen bidez

Zarauzko X. mendetik gaurdainoko historiaren museoa zabaldu dute

Herriko geografia, arkitektura eta kulturaren berri ematen duten 200 gauzaki bildu dituzte

Ainhoa Oiarzabal | ZARAUTZ

Atzo zabaldu zituen ateak Zarauzko Andre Maria Zeruratzearen parroko kanpandorreko museoak. Zarauzko Arte eta Historiaren museoa da, non herriko ezaugarri geografikoen, hirigintzakoen, arkitektonikoen eta kulturalen berri emateko X. mendetik gaur arteko 200 gauzaki paratu dituzten. Leopoldo Zugazak diseinatu du museoan zer eduki non jarri.

«Bisitarietara Zerautetz non dagoen, nola sortu zen, bertan zer gertatu den eta gaur egun zer dagoen erakusteko museo da», azaldu zuen Zugazak atzo inaugurazio ekitaldian. «Zarauzko museoaren gidoia» dela gaineratu zuen, hots, herriko museo mamitsu eta zabalago baten lehen urratsa dela. «Horren aurretik, ordea, herriko ondarearen bilduma osoagoa egin behar da. Hemen aurkeztzen diren gai jakin horiei buruzko erakusketa monografikoak antolatzeak ahalbidetuko digu etorkizuneko museorako bilduma», gaineratu zuen.

Aipaturiko erakusketa monografiko horiek Dorre Luzea aretoan antolatzeak asmoa dagoela azaldu zuen Zugazarekin batera museoari buruzko azalpenak ematen ari zuen Zarauzko alkate Maite Etxanizek. Halaber, museo handiagoa egiteko asmoa eduki arren, oraindik ez dutela ezer erabaki eta ezin dela ezer aurreratu zehaztu zuen.

Arte eta historia

Erdi Aroko kanpandorra museo bihurtzea 600.000 euro inguru kostatu da. «Diru horrekin



ordaindu ditugu museoko lanak eta indusketa lanak», azaldu zuen Zarauzko alkateak. Lan arkitektonikoen bitartez kanpandorrearen 120 metro koadro museo bihurtu dute, eta gauzakiak lau solairuetan banaturik jarri dituzte.

Lehenengoan, duela bost urte bertan aurkituriko Erdi Aroko nekropolia jarri dute erakusgai, beirazko zorua azpian. Hain zuzen, X. mendetik XIV. mendea bitarteko gorpuzkinen arrastoak erakusgai jarri behar zirelako ekin zioten atzo zabaldu zen museo diseinatzeko.

Arrasto horiekin batera XVI. mendetik hasi eta XX. mendea bitartean egindako mapa kartografikoak jarri dituzte hormetan

zintzilikaturik, «museora sartu eta berehala bisitariak Zerautetz koka dezan», arrazoitu zuen Zugazak mapa horiek han egotea.

Bigarren solairuan Fernando III.aren irudiak ematen dio ongi etorri bisitariari, hara joateko

INDUSKETA BERRIAK

Estragonek aipatu zuen herrietako bat ote?

Hilabete da Alex Ibañezek zuzenduriko Aranzadiko arkeologo taldeak Andre Maria Zeruratzearen kanpandorrearen ondoko parrokiako indusketa lanak amaitu zituela. Hango aztarnen artean «eraikin publiko garrantzitsua» dagoela zehaztu zuen atzo Ibañezek, museoaren inaugurazioan. Hain zuzen, aztarna horrek Estragonek aipatu zuen herri erromatarretako bat Zerautetz izan daitekeela pentsaraztera bultzatu ditu. Horregatik, elizako arrastoak lurrez ez estaltzea eskertuko dute, «etorkizunean ikertzen jarraitzeko aukera emango baitu horrek». Ildo beretik, Zarauzko kultura zinegotzi Jose Mari Agirrek indusketekin jarraitu «beharra» dagoela adierazi zuen.

eskailerak amaitu eta berehala jarri baitute haren margolana. «Gaztela eta Leongo erregea zenak 1237an Zarauzko forua nola berretsi zuen ekarri nahi izan baitugu gogora», zioen Zugazak. Zarauzko herriaren sorrerari buruzko hiri-gutunak, ordenantzak, arauak eta bestelako agiriak daude toki berean. Baita XVIII. mendetik XX. mendera arte hazkunde demografikoak eragindako hirigintza aldaketan berri ematen duten plano sekuentziak ere. Donajakue bidea eta bestelako komunikazio bideei buruzko xehetasunekin osatu dute solairua.

Hirugarren solairuan eraikin erlijiosoen irudiak eta aspaldiko ikastetxeetako gauzak daude. Batik bat, XVIII. mendeko Ikastetxe Misiolariari buruzko azalpenak ageri dira. Ondoa Zarauzko musikari eta idazle handien lanak nahiz herriko argitaletxeenak jarri dituzte ikusgai. Gerra garaiei buruzko idatziekin eta marrazkiekin bukatzen da solairuko erakusketa.

Laugarren eta azken solairuan herriko artista garaikideen artelanekin bete dute. Besteak beste, Iñigo Ormazabal, Palmiro Haro, Dora Salazar edo Rafael Munoren lanak bildu dituzte.

Hori guztia ikusgai egon arren, kanpandorreko museoan Zarauzko nekazaritza, industria nahiz pertsonaia ezagunei buruzko informazioa falta dela nabarmendu zuen Zugazak.

LABURAEAN



PACO TORRENTE / EFE
Julio Medem zinemagilea.

ZINEMA

Julio Medem zinemagile donostiarrak jaso du Seattleko Zinemaldiko ikusleen saria

Golden space needle saria eman diote Seattleko Zinemaldian (AEB) Julio Medem zinemagileari *Lucia y el sexo* filmagatik. Ikusleek eman dioten sari horrekin batera, *Emerging master* saria eskuratu du donostiarrak. Azken sari hori «potentzialitate handiko» lau zuzendarietara ematen diete, «ikusle estatu-batuaren gustuko lanak» egiten dituztenei, alegia. Uztailaren 12tik aurrera AEBetako zinema aretoetan eskainiko dute Medemen filma.

'Notre dameko konkorduna' eskainiko dute gaur Pasai Donibanen

Victor Hugoren bigarren mendeurrenaren ekitaldien barnean Disneyk ekoiztutako *Notre Dameko konkorduna* animaziozko film luzea eskainiko dute gaur Pasai Donibaneko Victor Hugo Kultur Etxean. Film honetan Victor Hugoren obraren pertsonaia guztien alegoria egiten da. Besteak beste, Quasimodo gizon ona, Frollo gizon gaiztoa eta Esmeralda emakume ederra ageri dira.

DANTZA

Tropicana baletak bere azken ikuskizuna aurkeztuko du Arriaga antzokian

Tropicana baletak *Cuba canta y baila* azken ikuskizuna plazaratuko du gaur, Bilboko Arriaga antzokian. Boleroetatik manbora doazen hamasei piezek osatzen dute *Cuba canta y baila*, eta 50 artistek parte hartzen dute bertan. Gaur egun Santiago Alfonso eta Fernando Valdesek zuzentzen duten Tropicana baleta Kubako dantzaren erreferente da, eta horren adibide dira oholatza gainean igaro dituen 63 urteak.

IRAGARKI MERKEAK - 943 300 222

**EUSKARA
IRAKASLE
IZATEKO
IKASTAROA**

**Uztailaren
1etik 24ra**

**IZENA EMATEKO
AZKEN EGUNA:**
ekainaren 26

INFORMAZIOA:
94 415 95 12

ANTOLATZAILEA:
BIZKAIKO AEK

**33 x 33 mm
MODULOA
(Iparralde)**

Eguna: **14 €**
Astea (6 egun): **12 €**
2 aste (12 egun): **10 €**
Hilabetea (24 egun): **8 €**

**33 x 33 mm
MODULOA
(Araba-Nafarroa)**

Eguna: **14 €**
Astea (6 egun): **12 €**
2 aste (12 egun): **10 €**
Hilabetea (24 egun): **8 €**